



Arartekoaren 2020NI-125-20 Ebazpena, 2020ko azaroaren 30ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako zentro batean kirol-irakaskuntzen barruan ikasketak deuseztatzeari buruzko kexan bere jarduna amaitzen du.

Aurrekariak

1. Pertsona bat Arartekoari zuzendu zitzaion kirol-irakaskuntzetako ikasketa batzuen inguruan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren jarduerari buruz erakundearen iritzia jakin nahi baitzuen.

Kexak azaldutakoaren arabera, 2018-2019 ikasturtean Hezkuntza Sailak baimendutako zentro batean matrikulatu zen, futbolaren modalitatean kirol-teknikariaren titulua lortze aldera ikasketak egiteko.

Lehen beste ikasketa batzuk eginak zituenez, hainbat jakintzagai baliozkotu zizkieten eta pertsonak irakaskuntza horien barruan lehenengo nahiz bigarren mailetan prestakuntza-programak burutu zituen. Hala, ziurtagiriak eman zizkieten 2019ko otsailaren 16an eta 2019ko ekainaren 28an, hurrenez hurren. Horiek zentro baimenduko zuzendariak eta idazkariak egin zituzten eta Hezkuntza Ikuskaritzaren zigilua zeramaten.

Agiri horietan, *“Lehenengo maila gainditu izanaren ziurtagiria”* eta *“Bigarren maila gainditu izanaren ziurtagiria”* izenekoetan, idatziz jaso gelditzen zen futbolaren modalitatean kirol-teknikariaren tituluari zegozkien maila ertaineko ikasketetan lehenengo eta bigarren maila amaituak zituela eta bakoitzean 8,00 puntuko kalifikazioa lortu zuela, sartzeko proba eta ikasketetako bloke nahiz modulu guztiak gainditu ostean. Horiek ere, ziurtagirietan zehaztuak azaltzen ziren.

Pertsonak bere prestakuntzarekin aurrera egin nahi zuelako, lehen aipatutako titulua eskatu zuen, baina une horretan jakin zuen Hezkuntza Ikuskaritzaren jardunaren ondorioz, zentroak hasieran ziurtagiriak emateko oinarri modura hartutako ebaluazio-aktak aldatu eta gerora deuseztatu zituela.

Aurrekoari eutsiz, akta horien orde berriak egin ziren eta, beraz, pertsonak bakarrik lehenengo mailako ikasketak gaindituak zituen. Nolanahi ere, egoera horrek faktuz ez zion uzten hirugarren mailako ikasketetan matrikulatzen eta, laburbilduz, horregatik jarri zuen kexa erakunde honetan.



2. Kexa formulatu ostean, Arartekoak 2020ko otsailaren 7an Bizkaiko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek emandako ebazpenaren berri izan zuen. Horren babesean, futbolaren modalitaterako maila ertainaren prestakuntza-zikloan kexagileak bakarrik lehenengo maila gainditua zuen.

2020ko martxoan pertsonak ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtoa jarri zuen eta erabakia oinarritzeko agiriak erabiltzen zituen argudioak aipatu zituen. Erakunde honek errekurtoaren ebazpena jakinaraztearen berririk ez du, nahiz eta aurki gainditu diren legezko epeak.

3. Arartekoak Hezkuntza Sailari idazki bat bidali zion. Horren bidez, kexa tratatzearen premia azaltzen zion eta, aldi berean, kexagileak egindako ikasketak onetsi, kontuan hartu eta bere prestakuntzarekin jarraitzeari buruzko informazioa nahi zuen.

Hezkuntza-administrazioak lehenengoz erantzun zuen Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenaren bitartez. Hori ikusirik, erakunde honek Hezkuntza Sailari idazki berria bidali zion. Hainbat argudio emateaz gain; kexa aztertzen zen bitartean, pertsonak bere ikasketekin aurrera egiteko kautelazko neurriak hartzea iradokitzen zen.

Hezkuntza Ikuskaritzaren bigarren txostena helarazi zitzaion Arartekoari eta erakundearen gogoeten aurka azaltzeko oinarriak ageri ziren. Dena den, kautelazko neurriak hartzeari buruzko aipamenik ez zegoen.

Espedienteko dokumentazio guztia aintzat hartuta, Arartekoak behin-behineko ondorioen idazkia egin zuen eta Hezkuntza Sailari jakinarazi zion. Ildo horri eutsiz, Hezkuntza Ikuskaritzak erantzunen txostena egin zuen eta hainbat egiaztatze-argudio adierazi zizkion.

Idazki horietan guztietan azaltzen diren argudioak ondorengo ataletan aztertuko dira, beraz, ez da bidezkoa orain deskribatzea.

Gogoetak

Kexa hau azertu eta izapidetzeko orduan, Arartekoak esku hartzeko zenbait ikuspegi erabili ditu eta behar bezala alderatu ostean, ondorioek hainbat gai lantzen

dituzte. Hala ere, guztiak elkar erlazionatuak daude eta hurrengo lerroetan modu antolatuan azaltzen saiatuko da.

1.

- 1.1. Lehenengo aztergaiak araubide berezian kirol-irakaskuntzen ordenamenduarekin zerikusia du. Hezkuntza-administrazioak azaldutakoaren arabera, ikasturte berean ikasketa horien maila bat baino gehiago ezin zen egin, kexagileak 2018-2019 ikasturtean gauzatutakoaren aldean.

Hain zuzen ere, lehenengo txostenean Hezkuntza Ikuskaritzak zentroari modu erabat irregularrean jardun izana leporatu zion, 2019ko otsailean, ikasle bakarrarekin (kexagilea) lehenengo mailari zegokion lehenengo akta bat egin baitzuen eta gainerako ikasleentzako bigarren akta araudiak ezartzen zuen epean, hau da, 2019ko ekainean, gauzatu baitzuen. Ikuskaritzatik ondorioztatu zitekeenaren arabera, jarduera horrek lehenengo mailan bi talde zeudela onartzea ekarriko luke, eta zentroak talde bakarrerako baimena zuen.

Bestalde, txostenean adierazten zen zentroak pertsona prestakuntza-ziklo bereko bigarren mailako taldean matrikulatu eta talde honen akten barruan sartu zuela; eta berez ezin zuen hori egin matrikula-epea itxita zegoelako.

Jarraian, aipatzen zuen 2018- 2019 ikasturtea amaitu ostean, zentroak aurkezturiko ziurtagiriak igorri zituela kexa-idatziarekin batera, eta Hezkuntza Ikuskaritzak irregulartasunaren inguruan ohartarazi zuela 2019ko irailean; une horretan, aktak aldatu eta zuzentzeko eskatu zen, arautegira egokitze aldera; hortaz, eskubide osoz deuseztatu zen bigarren mailako aktetan ezarritakoa.

Halaber, Bizkaiko Hezkuntzaren lurralde-ordezkaritzak oinarri juridiko bera erabili zuen 2020ko otsailaren 7ko ebazpena eman eta pertsona horrek bakarrik ikasketa horien lehenengo maila gaindituta zuela adierazteko.

- 1.2. Erakunde honek Hezkuntza Sailari azaldutakoaren arabera, bi akta egiteak bi talde egotea auresuposatzen zuenaren iritzia baieztapen bat besterik ez zen, eta ez zegoen azalpenik juridikoki justifikatu ahal izateko. Era berean, adierazten zen erakunde honek jakindakoarekin bat etorritik, ikasleak ebaluatzeko prozesuan ohiz kanpoko aktak egon zitezkeela. Nolanahi ere, taldearen barruan ikasle zehatzen jarduera edo inguruabar espezifikoekin berri emateko egiten dira. Xede horrez, kasu bakoitzean ematen diren berezko



ezaugarriei erreparatzen zaie eta horregatik ez da ulertzen talde bakarra bitan banatuta dagoenik.

Hala, Arartekoak hezkuntza-administrazioari jakinarazitakoarekin bat, beharrezkotzat jotzen zuen xehetasunez ezagutzea oinarri juridiko zehatza, batetik, Ikuskaritzaren ustez zentroak araudia ez betetzeko eta, bestetik, bi akta egiteagatik bi talde zeudela baieztatzeko, eta aldi berean, zein zen arrazoia ikasle baten harira otsailean egindako ohiz kanpoko akta batek zentroari talde bakarrarentzako emandako baimena urratzen zuenaren iritzia justifikatzen zuena.

Matrikulazioari dagokionez, Arartekoaren eskaerak azaldutakoari jarraiki, jakin ahal izan zuenaren arabera, ez da ezohikoa pertsona bat ikasturte berean zehar maila desberdinetan matrikulatuta egotea, ez eta baldintza jakin batzuk betetzen badira matrikulak onartzea ere. Azken kasu horretan, gainera, ikasleak hautaketa-prozesu arruntetik kanpo matrikulatu ahalko dira jarduera hori onuragarria bada berarentzat, 1/2018 Dekretuak¹ 12. artikuluan jasotzen den bezala.

Beraz, erakunde honek ondorioztatutakoaren arabera, printzipioz, ez zuen ikusten legezko ezintasunik prestakuntza-ziklo bereko bi maila gainditzeko kexagileari hasiera batean baimendu zitzaien moduan.

1.3. Gure eskaerari erantzuteko, Hezkuntza Ikuskaritzak txostena egin zuen eta 1363/2007² nahiz 320/2000³ Errege Dekretuen arauketari aipamen zabala egiten zion, baita 454/2002 ECD Aginduari⁴ ere, bi alderdi azpimarratzeko.

- Bat: ezinbestez maila edo gradu bakoitzean bloke komuna, berariazkoa eta osagarria gainditzea, prestakuntza praktikoaren blokea egin baino lehen.
- Bi: ikasturte bakoitzean bakarrik bi ebaluazio-deialdi egitea; lehenengoa, ohikoa, ikasturtea amaitutakoan egingo da; bien bitartean, bigarren deialdia, ohiz kanpoko, hilabetetik gorako eta hiru hilabetetik beherako

¹ Urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretua, ikasleak onetsi eta eskolatzeari buruzkoa.

² Otsailaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua, araubide berezian kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena.

³ Martxoaren 3ko 320/2000 Errege Dekretua, futbola eta aretoko futbola espezialitateetako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak ezarri, dagozkien gutxieneko irakaskuntzak onartu eta irakaskuntza horiek egiteko sarbide-probak eta -baldintzak arautzen dituena.

⁴ Otsailaren 22ko 454/2002 ECD Agindua, abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuak araututako kirol-teknikariaren tituluak lortzeko irakaskuntzen ebaluazio-txostenen oinarritzko elementuak eta ikasleen halabeharrezko mugikortasuna bermatzeko ebaluazio-prozeduren ondoriozko baldintza formalak xedatzen dituena.



epean gauzatu beharko da, ohiko deialdia amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Bi aurreikuspen horiei eutsiz, txostenaren arabera, kexagileak aldi berean egin zituen berariazko blokea, bloke osagarria eta prestakuntza praktikoaren blokea. Beraz, argi eta garbi xedatutako ordenamenduaren kontrakoa zen.

Halaber, ohartarazitakoarekin bat, baimendutako ikastetxeak bakarrik pertsona horrentzat 2019ko otsailean ebaluazioa legez kanpo egin zuen eta berari egokitutako ebaluazioaren antzekoa antolatu zuen.

Gure eskaeran adierazi genuen bezala ohiz kanpoko aktak egiteko aukerari dagokionez, Hezkuntza Ikuskaritzak kontzeptua egoera zehatzera mugatu zuen, baina aztergaiarekin zerikusirik izan gabe. Berak azaldutakoaren arabera, ohiz kanpoko aktaren kontzeptuak ez dio ohiz kanpoko egoerari erantzuten. Nolanahi ere, prozesu baten emaitza da: lehenengo ohiko aldiari dagokion ebaluazioa egin behar da eta, gerora, lehenengoa negatiboa bada, bigarren ebaluazioa eta emaitza horri, hain zuzen ere, "ohiz kanpoko akta" deritzo.

Adibide modura aipatu dira hainbat kasu pertsona bati maila batean baino gehiagotan edo ohiz kanpoko alditik kanpo matrikulatzen uzten dizkietenak. Erantzunen txostenari jarraiki, ordea, aplikaezina da 1/2018 Dekretuaren 22. artikulua, kexagilea ohiko alditik kanpo ez baitzen matrikulatu.

Halaber, horren esanetan, 2019ko maiatzaren 16ko aginduak⁵ matrikulazioa egiteko gehieneko epemuga finkatu zuen 2019ko urriaren 15eko 24:00etarako, beraz, zentroak pertsona hau ondoren matrikulatzeko aukerarik ez zuen. Gaiari eutsiz, nahiz eta araudia espedientean aztergai dugun ikasturtearen ondorengorako izan, 2018-2019 ikasturtean jakintzagaia arautzen zuen aginduak antzeko edukia zuela adierazi behar da.

Azkenik, bai erakunde honi emandako lehenengo erantzunean, bai interesdunari jakinarazitako ebazpenean, jarduera oinarritzeko justifikazio juridikoari erreparatuz gero, txostenak dio aipatutako beste argudio horiek kontuan hartuta, *"La interpretación de que esto [la evaluación del promotor de*

Hezkuntza sailburuaren 2019ko maiatzaren 16ko AGINDUA. Agindu horren bidez, 2019-2020 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduek eskaintzen duten hezkuntza sistemaren baitako lanbide heziketako zikloetan izena emateko eskaerak aurkezteko, ikasleak onartzeko eta matrikula egiteko epeak biltzen dituen egutegi komuna ezarri da, aipatutako ikastetxeetan onartua izateko eta matrikula egiteko jarraibideak onartu dira, eta hizpide ditugun ikasketak eskaintzen dituzten zentro guztietan eskaerak erregistratzeko eta matrikula egiteko argibideak onetsi dira.



la queja en el mes de febrero] presupone la existencia de dos grupos para los que no tenía autorización, aun siendo cierto, resultaría irrelevante teniendo en cuenta lo que establece la normativa citada.” Gaiari berriz eutsiko diogu ebazpen honen beste atal batean.

- 1.4. Azaldutakoa ikusirik, Arartekoa berriz ere hezkuntza-administrazioari zuzendu zitzaion behin-behineko ondorioen bidez. Horietan onartzen zuen halako irakaskuntzen arauketari zegokion ahoz ahoko interpretazioarekin, Hezkuntza Sailak bidalitako txostenaren arabera, itxuraz, eskema honakoa zela: prestakuntza praktikoaren blokea baino lehen irakaskuntzetako gainerako blokeak gauzatu behar zirela. Horrenbestez, aldi berean garatzearen aurkakoa zen.

Hala, Arartekoak adierazitakoaren babesean, kexagileak ikasketak egin zituen ikastetxearen jardunari jarraiki, ohikoa eta hedatua zirudien, nahiz eta interpretazio horretatik ondoriozta daitekeenarekin bat ez etorri. Aurrekoaren harira, ez da jakina jarduteko modu hori Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan kirol-irakaskuntzak irakasten dituzten beste zentro batzuetan ere erabil dezaketen.

Hala eta guztiz ere, erakunde honen iritziz, azpimarragarria da inguruabar horrek baliaezintasun garrantzirik ez zuela, nahiz eta, dirudenez, balio hori eman nahi zitzaion. Batetik, aktak ordezkatu ostean egindako zuzenketak oraindik pertsona horri ikasketa horien lehenengo maila gainditutzat ematen zion eta, bestetik, aldiberekotasun-baldintza berdinak bigarren mailari zegokionez, Ikuskaritzaren jarduera oinarritzeko erabili ziren.

Bestalde, Arartekoak azaldutakoaren arabera, ez zuen zalantzan jarri ebaluazio orokorrak ikasturte bakoitzean bakarrik bi deialdi dituela, baina bere iritziz, argudio bakar horretatik ezin liteke ondoriozta, Hezkuntza Ikuskaritzak egindakoaren antzera, honako hau: *“ha quedado suficientemente demostrado que no se puede hacer en un curso escolar dos niveles de Técnico Deportivo en la especialidad de fútbol”*.

Gure idazkian azaldu genuen bezala, irakaskuntzen ordenamenduak ildo horretatik berariazko aurreikuspenik ez du eta gerta liteke, beste irakaskuntza batzuetan gertatutakoaren antzera, hezkuntza-administrazioak, edozein gorabehera dela eta, pertsona berak ikasturte berean maila bat baino gehiago egin dezan baimentzea. Aurrekoari eutsiz, adibide modura, 2/2006 Lege

Organikoaren⁶ 48.2 artikulua aipatzen zen, musika eta dantzako oinarrizko irakaskuntza eta irakaskuntza profesionalak antolatzearen inguruan: *“Los alumnos podrán, con carácter excepcional y previa orientación del profesorado, matricularse en más de un curso cuando así lo permita su capacidad de aprendizaje.”*

Horregatik, eztabaidarako alderdia dela onartu arren, Arartekoak 2/2006 Legeak berak emandako malgutasuna aipatu zuen. Izan ere, orokorrean hezkuntza-sistemaren ezaugarri bat da eta Lanbide Heziketara, baita araubide bereziko irakaskuntzetara, hau da, espedientea sortu zuten horietara ere, zabal daiteke.

Ildo beretik, erreparatu zitzaion arestian aipatu den 1363/2007 Errege Dekretuari. Hezkuntza-eskaintzan malgutasunaren irizpidea sartzen du eta, zehatz-mehatz esanda, 24. artikulua hala dio: *“La oferta de las enseñanzas deportivas podrá flexibilizarse para permitir compatibilizar el estudio con otras actividades deportivas, laborales o de otra índole, principalmente a las personas adultas y a los deportistas de alto rendimiento.”*

Horrez gain, ondorioen idazkiak ohiz kanpoko aktaren kontzeptua, aurreko eskaerakoa, zehazten zuen. Hezkuntza-administrazioaren erantzunetik ondorioztatutakoaren aldean, bigarren deialdiko ebaluazio-aktak ez zituen aipatu nahi, bestelako agiriak baizik, hain zuzen ere, ohiz aurrez ikusi ez diren gertaera eta inguruabarrak, prestakuntza-prozesuetan sortutakoak, islatzeko balioa eta izaera duten horiek, arreta eman behar baitzaie, ebaztea ezinbestekoa baita eta prozeduraren barruan protokolo nahikoa izan behar baitute.

Halaber, 1/2018 Dekretuaren 22. artikuluari egindako aipamena argitzen zuen. Gure eskaerak ez zuen adierazten artikulua araututako egoera kexagileari aplikagarria zitzaionik, nahiz eta, itxuraz, hori interpretatu erantzunen txostenak. Edozelan ere, gure asmoa zen adibideen zerrenda batean sartzea, pertsona batek ikasturte berean maila desberdinetan matrikula egitearen aukera indartzeko.

Azkenik, erakunde honek halabeharrez bere harridura azaldu zuen Hezkuntza Ikuskaritzak bere txostenean berriaz egindako baieztapen baten aurrean: *“ha quedado suficientemente demostrado que no se puede hacer en un curso escolar dos niveles de Técnico Deportivo en la especialidad de fútbol”*. CPED

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzarena.



Kirolene KIIP zentroa araubide berezian kirol-irakaskuntzak irakasteko Hezkuntza Sailaren zentro publikoa dela aintzat hartuta, bere webgunean ondorio hori argi eta garbi kontraesanean jartzen zuen.

Hain zuzen, hezkuntza-eskaintza aurkeztean, futbolaren modalitatean, zentroak hitzez hitz ondorengo hau iragartzen zuen: *“Posibilidad de obtener la titulación de Técnico/a Deportivo/a en Fútbol en un curso académico (de septiembre a septiembre).”*

Hori guztia ikusirik, erakunde honen ustez, administrazioak bidalitako txostenean azaltzen ziren ondorioak ezin zitezkeen bermatu eta berriz ere bere iritzia helarazi zuen: *“no se observa, en principio, que concurre imposibilidad legal para poder superar dos niveles de un mismo ciclo formativo en la forma en la que inicialmente se había permitido al promotor de la queja.”*

- 1.5. Hezkuntza Sailak txosten berria bidali zuen Arartekoak idatzitako behin-behineko ondorioei erantzuteko. Edukia ondoren aipatuko da, iritzi eta argudioak balioztatzearekin batera.

Ildo horri jarraiki, txostena hasteko Hezkuntza Ikuskaritzak pertsona gainerako taldekideekiko une desberdinean ebaluatzea eta, ondoren, egoera islatzen duen akta egitea aztertzen du. Hala, baieztatutakoaren arabera, paradoxa litzateke 20 ikasleko taldea data desberdinetan eta akta ezberdinekin ebalua daitekeela pentsatzea. Bere ustez, egoera *“nunca se ha dado y es imposible que ocurra”*; arrazoia: *“Todos los alumnos de primer curso deben aparecer en un acta; a no ser que el centro tuviera más grupos autorizados y entonces habría tantas actas como grupos. Cuestión que sí es relevante.”*

Modu horretan, agiriak berriz errepikatu nahi du erakunde honi eta kaltetutakoari helarazitako hasierako argudioa. Dena den, antzeko egoera paradoxaz jotzetik edo inoiz ez dela gertatu adieraztetik at, baieztapen horiei eusteko oinarri juridikorik azaldu gabe jarraitzen du.

Era berean, ohiz kanpoko aktei buruz aurreko txostenetako iritzia berresten du: bigarren ebaluazioaren ondorioz egindakoak dira, ohiko aldiaren ebaluazio negatiboa izan ondoren. Beraz, kontzeptu horrek ohiz kanpoko egoerei erantzun ahal izatea ezesten du.



Azkeneko ikuspegi horretatik ondoriozta daiteke hezkuntza-prozesuan ezin daitekeela ohiko izapideetatik kanpo administrazio-espeditentean nolabait jasotzeko edozein egoera edo inguruabar eman. Erakunde honen iritziz, ordea, ezin da egoera hori baztertu, gure aurreko idazkietan azaldutakoaren ildotik, beraz, errealitatea kudeatze aldera, behar bezala islatzeko tresna bat ezinbestekoa da, "ohiz kanpoko akta" izena edo egokitzen jotzen den bestelakoa ematea gorabehera.

Ondoren, txostenak azaldutakoarekin bat, ikaslea ezin daiteke matrikula xede horretarako zehaztutako datetatik kanpo, nahitaezko irakaskuntzan izan ezik. Horretan bakarrik dago aukera hori. Txostena aztertzen jarraituz gero, kasu honetan, matrikula otsailaren 14an formalizatu zen, epez kanpo eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren baimenik gabe. Gainera, eskola-taldeak ez daude ikasturte osoan irekiak ikasleek beren interesekin bat matrikulatzeko. Baieztapen horiek lanbide-heziketako irakaskuntzetarako 2018ko maiatzaren 8ko aginduak⁷ finkatutako data orokorretan oinarritzen dira. 2.4 artikulua matrikulazio-epemugatzat jotzen zuen honako hau: 2018ko urriaren 15eko 24:00ak.

Hezkuntza-administrazioak bidalitako txostenen informazioari erreparatuz gero, araubide berezian kirol-irakaskuntzak garatu behar dira, bai araudiaren ikuspegitik, baita prozeduraren ikuspuntutik ere, baieztatutakoaren arabera, *"estas enseñanzas de régimen especial, (...) no están dentro de los soportes informáticos para gestionar la matrícula, no tienen DAE, no existe una Orden de nada sobre las cuestiones planteadas."*

Beraz, kexa eragin duten irakaskuntzen barruan, araubide berezian kirol-irakaskuntzak egiteko orduan matrikularen oinarritzko gaiei buruzko araudi-esparru argirik ez dago. Dena den, Hezkuntza Ikuskaritzak matrikula-epreak aipatzen dituenean Lanbide Heziketarako berariazko araudia aplikatzen du.

Erakunde honek ezin izan du ezagutu kexagileak matrikula egiteko erabilitako prozedura, aurrerago aztertuko den bezala, prozeduraren xehetasunik ez baita eman. Nolanahi ere, pertsona bi mailatan matrikulatu zen, zegozkion ikasketak egin zituen, mailak gainditutakoan ziurtagiriak lortu zituen eta Hezkuntza Ikuskaritzak ontzat eman zituen. Hori guztia eztaba daezina da.

Hezkuntza sailburuaren 2018ko maiatzaren 8ko agindua. Agindu horren bidez, 2018-2019 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduek eskaintzen duten hezkuntza sistemaren baitako lanbide heziketako zikloetan izena emateko eskaerak aurkezteko, ikasleak onartzeko eta matrikula egiteko epeak biltzen dituen egutegi komuna ezarri da, aipatutako ikastetxeetan onartua izateko eta matrikula egiteko jarraibideak onartu dira, eta hizpide ditugun ikasketak eskaintzen dituzten zentro guztietan eskaerak erregistratzeko eta matrikula egiteko argibideak onetsi dira.



Hala eta guztiz ere, jarduera horiek kontuan hartuta eta, itxuraz, halako irakaskuntza-motetarako berariazko araudirik ez dagoela argia izan arren, araudiaren hutsunearen ondorio bakarrak izan ziren jardun guztia zuzentzea eta, beraz, kaltetutakoak ikasketa-maila galtzea, nahiz eta gaindituta zuela ziurtatu. Hezkuntza Ikuskaritzaren iritziz ikastetxeak prozesua ez zuen behar bezala kudeatu.

Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak hezkuntza-sistemaren ezaugarri gisa Arartekoak aipatutako malgutasuna ere hizpide du. Erakundearekin ados da honako bi kasu hauetan berariaz aurrez ikusitako malgutasunarekin: batetik, musika- eta dantza-irakaskuntzen kasuan eta, bestetik, goi-mailako gaitasunak dituztelako adina baino lehenago unibertsitatera iristen diren pertsonen kasuan.

Bere ustez, ordea, kirol-irakaskuntzen kasuan, malgutasuna bakarrik irakaskuntza-eskaintza egiten den unera mugatzen da, hain zuzen ere, beste jarduera batzuekin bateragarri egiteko, baina ikasturte berean bi maila gauzatzeari ezin zaio aplikatu. Hala, bere iritziz, 1363/2007 Errege Dekretuak ez du inola ere ikasketak egiteko epeak murriztea uzten, alderantziz, luzatzea baizik.

Gainera, bere esanetan, kexan azaldutako moduan ikasturte bat aurreratzeko aukera izan arren, ez zen salbuespenezko eskaerarik egin eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ez zuen baimendu bigarren mailarako matrikula epez kanpo egitea.

Berriz azpimarratzen du araubide berezian kirol-irakaskuntzen inguruko araudiari eutsiz, maila bakoitzean bloke komuna, berariazkoa eta osagarria gainditu behar direla prestakuntza praktikoaren blokea egin ahal izateko, beraz, puntu honetan berriz errepikatzen du bi ikasturte bakarrean ezin direla egin.

Dena den, onartzen du kexagileak gauzatu zituen bi mailak ikasturte bakarrean egiteko modua dagoela, CEPD Kirolene KIIP zentroak argitaratutako informazioaren ildotik. Nolanahi ere, erakunde honek hori bere wegbunean ezagutu zuen.

Txostenari jarraiki, aukera 1363/2007 Errege Dekretuak 29.4 artikuluan xedatutakoarekin bat dator: *"Excepcionalmente, las Administraciones*

educativas competentes podrán autorizar el acceso al bloque común del ciclo final de grado medio sin haber concluido el módulo de formación práctica del ciclo inicial, siempre que se acrediten los requisitos de carácter específico que, para el ciclo final de la modalidad o especialidad deportiva, se determinan en el correspondiente real decreto que establezca el título y enseñanzas mínimas. En caso de producirse esta excepcionalidad, para acceder al bloque específico del correspondiente ciclo final se exigirá tener superado en su totalidad el ciclo inicial de la misma modalidad o especialidad deportiva".

Aurrekoari eutsiz, aukera gauzatzeko, Hezkuntza Ikuskaritzak azaldutakoaren arabera, interesdunak urrutiko modalitatearen barruan irakaskuntzak irakasteko zentro baimenduan matrikulatuta egon beharko du eta baldintza hori betetzen duen zentro bakarra, hain zuzen, CEPD Kirolene KIIP zentroa da. Bien bitartean, kexa honetan nahasitako zentroak ez du halako baimenik.

Dirudenez, txostenak adierazitakoarekin bat etorriz, azkeneko zentroko zuzendaritza-taldeak fede onez eta ezjakintasunez jardun zuen eta, Kiroleneren antzera, ikasketak modu horretan egiteari buruzko informazioa izan arren, ez zekien baimena halabeharrez eskatu behar zuela.

Espedientea izapidetzeko hezkuntza-araudia irakurri ondoren, malgutasunari dagokionez, erakunde honek ezin dezake ondoriozta, araudiak aurrez ikusitakoaren arabera, bakarrik ikasketak luzatzea justifikatuta egotea.

Zehatz-mehatz esanda, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuari eutsiz, arloan testuak esparru zabala zehazten du, bestea beste, honako hau: *"La oferta, el acceso y la matrícula se establecen con la finalidad de conseguir la flexibilidad en las enseñanzas deportivas, permitiendo la oferta modular y por bloques, la adaptación de la oferta a las características de grupos especiales y a las condiciones personales de los técnicos (edad, situación laboral, etc.), la formación a distancia y la matrícula parcial"*. Modu horretan, xedapenek, itxuraz, ez diote eragozpenik jartzen malgutasuna epeak murrizteko aplikatzeari.

Izan ere, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak berak dio hezkuntza-araudiari esker ikasturte bakoitzeko maila bana egitearen aldean, epe laburragoan gauza daitezkeela ikasketa horiek. Hala, titulua urtebetean (*"irailetik irailera"*) lortzeko aukera dago, CEPD Kirolene KIIP zentroak hezkuntza-eskaintza iragartzeko erabiltzen dituen hitzetan.



Hezkuntza-administrazioari salbuespenezko egoera jakinarazi edo baimena eskatzeari dagokionez, txostenaren babesean, ikasturte bat aurreratzeko ezinbesteko baldintza da, baina erakunde honi aurkeztutako dokumentazioan ez dago halako jarduerarik.

Dena den, gaia aztertuz gero, ezin daiteke alde batera utzi kasu honetan matrikula Hezkuntza Sailak baimendutako zentroan formalizatu zela, ikasketak ikasturtean zehar egin zirela eta, azkenik, hezkuntza-administrazioaren zigilu ofiziala zuen agiria tarteko ziurtatu zirela. Pentsa zitekeen jarduera horiek guztiek lege- eta administrazio-estaldura nahikoa izanik, baimen osagarririk ez zutela behar.

Gure iritziz, interesdunari ezin zaio leporatu edozein baimen eskatu ez zuenik. Izan ere, prestakuntza-prozesu guztia oso-osorik garatu zuen, itxuraz, arauketaren barruan zeuden administrazio izapide eta ziurtagirien babesean. Gerora, amaitu ondoren, egoeraren gorabeherak, berarentzat ezezagunak eta konpongaitzak, jakinarazi zitzaizkion.

Azkenik, erakunde honek gaiaren inguruan beste alderdi bat azaldu nahi du. Ikasketak urtebetean egiteko aukera hizpide hartuz gero, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak 1363/2007 Errege Dekretuaren 29.4 artikulua aipatzen du, baina ez du adierazten araudirik ikasketak modu horretan egiteko aukera bakarra urritiko zentroan matrikulatzea izan eta, ondorioz, hautatutako aukera ezinezkoa suertatzearen inguruan. Beraz, ezin daiteke alderdi hori balioetsi.

Nolanahi ere, erakunde honen ustez, egiaz garrantzitsua honako hau da: aukera badagoela, eta kasu honetan, ohiz kanpo egindako administrazio-izapideengatik, kalte nabarmena eragin zaiola pertsonari, berak bere prestakuntza-prozesua fede onez garatu eta amaitu arren.

2.

2.1. Bigarren aztergaiak kexagilearen matrikulazio-prozesua landu nahi du.

Gaiari eutsiz, hezkuntza-administrazioaren esanetan, pertsona *“se matriculó de manera irregular en el segundo nivel, fuera del plazo de matrícula y sin cumplir con los requisitos legales para poder cursar el 2º nivel”*.



Hala, pertsonak bi mailatan matrikula gauzatzeko modua ezagutu nahi izan zuen Arartekoak. Hezkuntza-administrazioak berak arautu eta ikuskatutako prozedura dela abiapuntutzat hartuta, tresna informatikoez xede horretarako datuak izan behar dituzte.

Erakundearen iritziz, datuak ezagutzea oinarrizkoa zen kexa aztertzeko, matrikulazio-jarduerari esker, pertsonak ikasketak egin baitzituen, zentroak ebaluatu baitzizkion eta bi mailak gainditu izanari buruzko ziurtagiriak lortu baitzituen. Horrenbestez, horren atzean eskubideak sortzen zituen administrazio-egintza argia zegoen.

- 2.2. Errekerimenduari erantzuteko, hezkuntza-administrazioak bidalitako txostenean bakarrik hurrengo hau adierazten da:

“El proceso de matriculación de las Enseñanzas Deportivas de Régimen Especial está fuera de los soportes informáticos habilitados para el resto de las enseñanzas del Sistema Educativo Vasco. Estas enseñanzas no tienen Documento de Actividad Escolar (DAE) y la matrícula se realiza en el propio centro sin posibilidad de supervisión, quedando en manos de los propios centros su gestión.

Sería interesante por parte de esa Institución que analizara la situación de estas enseñanzas e instara a la Administración Educativa a que procediera a actualizar todo lo concerniente a estas enseñanzas de régimen especial, ya que como se ha dicho no están dentro de los soportes informáticos para gestionar la matrícula, no tienen DAE, no existe una Orden de nada sobre las cuestiones planteadas. Esto también es extensible a todas las especialidades de estas enseñanzas.”

- 2.3. Erantzuna ikusirik, Arartekoak ezinbestekotzat jo zuen bere behin-behineko ondorioetan ondorengo honetaz ohartaraztea: hezkuntza-administrazioaren ustez araubide bereziko irakaskuntzen egoera aztertu behar bada, berak bere gain hartu beharko duela ekimenaren lidergoa, kasuak kasu, erakunde honek egin ditzakeen kanpoko iradokizun edo gomendiorik gabe.

Xede horrez, Hezkuntza Ikuskaritzari atxikitako funtzioak gogorarazi ziren. Ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzeko berariaz emandako zereginekin batera, berez ahalmenak ditu hezkuntza-administrazioari antzemandako gabezien berri emateko, baita hobekuntza-proposamenak helarazteko ere.

Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak baieztatutakoari erreparatuz, araubide berezian kirol-irakaskuntza horiek irakasten dituzten zentro baimenduek ikuskapenik gabe egiten dute matrikula. Erakunde honen ustez, aurreko iritziez gain, baieztapena behar bezala zehaztu behar zen.



lido horri eutsiz, gaur egun matrikulak mekanikoki izapide litezke eta, aldi berean, hezkuntza-administrazioak, gutxiena izan arren, zentro baimenduen prozesuak kudeatzen parte hartu beharko luke. Arartekoak azaldutakoaren arabera, hori ez aurreikusteak berehalako ikuskapena eta fiskalizazioa zail ditzake.

Erakundearen iritziz, hori egiaztatu ostean, ezin daiteke uler matrikulak eta horien ondoriozko gainerako jarduerak kontrolik gabeko jarduerak izatea, aztergai dugun adibideak berak argi eta garbi frogatzen duen bezala.

- 2.4. Gogoeta horiei erantzute aldera, Hezkuntza Ikuskaritzaren hitzetan, hainbatetan hezkuntza-administrazioari jakinarazi dio irakaskuntza horiek kontrolatu eta ikuskatzeko elementuez zuzkitu behar direla. Izan ere, egoeraren zuzeneko informazioa lortu beharko litzateke, bai matrikulari, bai zentroak kudeatzeko beste baldintzatzaile batzuei buruz.

Hala ere, bere esanetan, hori ez zen gaiaren sakoneko eztabaidaren arrazoia, ondorengo hau argitu behar baitzen: *“en definitiva es si un alumno puede o no cursar los estudios de primer nivel y segundo nivel en un año”*, berehala ondorioztatzeko ezinezkoa dela.

Azkenik, azaldutakoaren arabera, kasuan nahasitako ikastetxeko zuzendaritza-taldeari eskatu zaio, batetik, aurrerantzean egintzarik (matrikulak, ebaluazioak, egutegiak...) ez gauzatzeko Hezkuntza Ikuskaritzak aldeztatik berri izan gabe eta, bestetik, egintzekin zerikusia duen dokumentazioa nahikoa tarterekin bidaltzeko.

- 2.5. Ondorioz, jardun guztiaren ostean, erakunde honek ez du jakin kexagilea matrikulatzeko prozedura zehatza: zer araudi aplikatu zen, zer izapide egin ziren, non eta nola islatu ziren horiek edo norke parte hartu zuen prozesuan.

Halaber, azalpen gehiagorik gabe, ezin izan ditugu argitu honako alderdi guzti hauek: kasu honetan zentroari egindako errekerimenduak halako irakaskuntzak dituzten zentro guztietarako jarduera orokorrari erantzuten dion, esku-hartze berezia den, jardun okerren bat antzematearen ondorioz egituratu den, ala denboran mantendu edo neurri puntuala den.

Horrenbestez, ez da bidezkoa aurreko idatz-zatietan egindakotik at gehiago zabaltzea. Dena den, argi dago koordinazio- eta kontrol-prozedurak abian jarri behar direla, hezkuntza-administrazioak bere eskumenak eta ahalmenak



arrazoizko epean eta eraginkortasunez erabiltzeko. Nolanahi ere, kexa honetan aztertzen ari garen egoera berri bat planteatzea saihestu behar da.

3.

- 3.1. Erakundearen ustez, hirugarren aztergaia ekarri behar da gogora nahitaezko hausnarketa egiteko. Kirol-irakaskuntzetako zentro baimenduetan edo bere ikuskaritzapean dauden bestelako zentroetan jarduera zehatzak gauzatu ondoren, Hezkuntza-administrazioak horiek berrikusteko eskatzen duenean, jarraitu beharreko jarduera-bideaz ari da.

Lehen aurreratu den bezala, erakunde hau hezkuntza-administrazioarekin bat etor daiteke gaur egun matrikula-prozesuak berehala fiskalizatzeko zailtasun nabarmenari aurre egin behar diola baieztatzean.

Are gehiago, Arartekoak zati batean uler dezake ikastetxeek egindako dokumentazioak, hala nola interesdunaren ziurtagiriek eta, azken finean, ziurtagirien aurrekariak diren ebaluazio-aktek, Hezkuntza Ikuskaritzak ontzat eman arren, komunikazio-egintza hutsari erantzuten diotela. Hala, horien edukiaren baliozkotasuna ez da aurretik juzgatzen, nahiz eta agiriekin halako erreparorik ez adierazi.

Dena den, zentroein txosten honetan deskribatutako moduan matrikula kudeatzeko eta dokumentazioa egin eta emateko ahalmena eskuratzen zaienean, ahalmen horiek hainbat bermerekin eman zaizkiela espero da. Horrez gain, jarduerak arin eta eraginkortasunez ikuskatuko direla pentsatu behar da, kontuan hartuta administrazio-jarduerak direla, ondorez ofizialak dituztela, eta, beraz, interesdunentzat oso ondorio garrantzitsuak izan ditzaketela.

Gaiari eutsiz, ezin daiteke alde batera utzi pertsona bat irakaskuntza batzuetan matrikulatuta dagoenean, besteak beste, ikasketak egiteko ahalmena duela. Maila bat gaitzuta duela egiaztatzen duen ziurtagiriak, ordea, hainbat eskubide ematen ditu.

Are gehiago, 2019ko irailean gertatu zen bezala, hezkuntza-administrazioak zentroek izapidetutako dokumentazioaren (aktak, ziurtagiriak...) berri duenean eta bere iritziz irregularra edo ordenamenduz kanpokoan izan daitekeela argi duenean, ez da bidezkoa administrazioak jarduera soil bat egitea, izapide

gehiagorik gabe, hain zuzen ere, ukitutako zentroari “premiatzea” bat ez datorren dokumentazioa aldatu, deuseztatu eta ordezkatzeko.

Ustezko horietan hezkuntza-administrazioak, administrazio publikoa den heinean, jarduera antolatu behar du eta oinarri zehatzik ez dagoelako, une hartara arte hartutako erabakiak eta interesdunari jakinarazitakoak ikuskatzeko prozedura hasi beharko du.

Nolanahi ere, prozedura horrek izapidetzeko eskakizun guztiei erreparatu beharko die eta jarduera guztiak bildu eta idatziz jasota geldituko dira. Araudiak aurrez ikusten dituen organo guztiek eta interesdun orok (zentro baimenduak, ukitutako ikasleek...) parte hartu beharko dute, kontraesaneko izapideak administrazioaren ebazpen edo erabakiarekin amaitu arte. Gainera, jakinarazi ostean, beharrezkotzat jotzen diren errekursoak jarri ahal izango dira eta, bide batez, edozein defentsa-gabezia saihestuko da.

Ildo horretatik eskatu zion erakunde honek Hezkuntza Sailari informazioa, deuseztatze erabakia hartze aldera ordura arte helarazitako informazioak kontraesaneko prozedura ireki eta izapidetzeari buruz aipamenik ez baitzuen egiten.

- 3.2. Horri erantzuteko hezkuntza-administrazioaren txostenak gogoeta horien inguruan ez zuen adierazpenik azaldu eta bakarrik gure behin-behineko ondorioen idazkiak hizpide hartu zuenean, Hezkuntza Ikuskaritzak honako hau aipatu zuen:

“En relación con los certificados de primer nivel y segundo nivel, fechados el 16 de febrero de 2019 y 28 de junio de 2019 donde figuraba el sello de la Inspección de Educación, (...) quiere aclarar y reconocer que fue un error, debido a las circunstancias que en aquellos momentos se produjeron, y que posteriormente, cuando se revisaron todas las actas de final de curso, se observó dicho error, (dos actas de primero, alumno que aparece simultáneamente en primero y segundo), por lo que procedió a corregir y a anular las actas incorrectas para emitir unas nuevas.”

Horrez gain, bere jarduera oinarritzeko 39/2015 Legeko 109.2 artikulura jotzen du⁸. Horren arabera, edozein unetan administrazio publikoek “*beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak*” zuzentzeko gaitasuna dute.

⁸ Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Eta, aurrekoari eutsiz, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduera izan zen **“zuzentzea”**; bestela, *“Si no lo hubiera hecho, a sabiendas de que lo reflejado en las actas no era correcto, en consecuencia, ilegal, estaría **PREVARICANDO.**”*

- 3.3. Aurreko paragrafoetan azaldutakoa ikusirik, erakunde honen ustez, jardueraren oinarri juridiko bezala hartutako artikulua ez dio estaldura nahikoa ematen, kexan deskribatutako egoera ezin delako inola ere akats material, izatezko akats edo akats aritmetiko sinpletzat jo.

Nahiz eta ebazpen honetan behin eta berriz adierazi den, kontuan hartu behar dira ekintza horiek, hain zuzen, irakaskuntzen maila zehatzean pertsona matrikulatu izana edo Hezkuntza Ikuskaritzak ontzat emandako ziurtagiri ofizialak, ikasketak egin eta probak gainditu ostean lortutakoak, ematea. Horien arabera, ikasketa horien bi maila gainditu dira.

Aurrekoaren harira, administrazio-hezkuntzak jarduerak lege-justifikaziorik ez dutela uste duenean, erreakzionatzeko ahalmena du. Erakunde horrek aurkakoa ez du inola ere iradoki. Baina argi dago egiteko 39/2015 Legeak berak ustezko horietarako dituen ikuskapen-prozedurak erabili behar dituela. Akats taktikoen balizko zuzenketa oinarri modura hartuta, ezin ditzake neurri baten bidez elementu juridikoak aldatu eta modu horretan izapiderik gabeko jarduera bihurtu.

4.

Ondorioei buruzko ebazpen honetan erakunde honek beste alderdi bat izan nahi du aztergai. Erakundearen iritziz, espedientearen izapidetzeko egin den bide luzean jarduera oinarritzeko asko aldatu da.

Aurrekoari eutsiz, Bizkaiko lurralde-ordezkariek 2020ko otsailaren 7an ebazpena eman zuen eta kexagileari helarazi zitzaion. Horren bidez, jarduera hurrengo arrazoi hauetan funtsatu zen:

“2019 otsailean, (...) ikastetxeko idazkariak Erdi Mailako Zikloko (Futbol modalitatea) akta akademikoa bidali ziola Hezkuntza Ikuskaritzari, ikasle bakar batekin: (...). Gainerako ikasleekin lehen mailako akta araudiak ezartzen duen aldiaren egiten da, hau da, ekainean. Horrek maila horretan bi talde egotea ekarriko luke, ikastetxeak maila bakoitzerako talde bat soilik baimenduta duenean.

Jarraian, ikastetxeko zuzendaritzak heziketa-ziklo bereko bigarren mailako taldean matrikulatzen duela ikasle hau, eta talde horretako aktetan sartzen duela. Otsailean ezin da



ikasle bat matrikulatu. Urtero matrikulatzeko epea deialdi bakarrean egiten da, uztaillean, urriaren 15era arte matrikulatzeko aukera emanez, plaza libreen kasuan.”

Hezkuntza-administrazioak erakunde honi bidalitako lehenengo txostenean argudioak berdinak ziren eta, gainera, ondorioen atalari erreparatuz, baimendutako talde-kopuruari zegokionez zentroaren jardura irregularra zen ondorengo arrazoi hauengatik:

“Que hay dos actas del primer nivel del Ciclo Formativo de Grado Medio en la modalidad de Fútbol. Dos actas significan que existen dos grupos, cuando el centro (...) tiene autorizado únicamente un grupo.”

Ondoren, erakunde honek informazioa eskatu zion eta berriaz gai hori lantzea nahi zuen, baieztapenen oinarri juridikoekin batera. Zehazki, hona hemen eskatutakoa:

“Horregatik guztiagatik, eta egindako kexaren zentzuzko azterketa bat egin ahal izateko, beharrezkotzat jotzen dugu xehetasunez ezagutzea zein den Ikuskaritzaren ustez zentroak bete ez duen araudia zein bi akta egoteak bi talde egotea dakarrenaren baieztapena eusten duen oinarri juridiko zehatza, eta era berean, zein den arrazoia ikasle baten harira otsailean egindako ohiz kanpoko akta batek zentroari talde bakarrarentzako emandako baimena urratzen duenaren iritzia justifikatzen duena.”

Eskaerari erantzuteko erabili zen txostenean oinarri juridikoez ezer ez adierazteaz gain, lehenengoz beste argudio batzuk azaleratzen zituen jardura justifikatzeko. Hala zioen: *“La interpretación de que esto [la evaluación del promotor de la queja en el mes de febrero] presupone la existencia de dos grupos para los que no tenía autorización, aun siendo cierto, resultaría irrelevante teniendo en cuenta lo que establece la normativa citada.”*

Bigarren txosten honek Hezkuntza Ikuskaritzaren jardura arrazoitzeko ordura arte aipatu gabeko gertakarira jo zuen. Horren arabera, kexagileak prestakuntza praktikoaren blokea eta baliozkotu gabeko gainerako jakintzagaiak aldi berean egin zituen, nahiz eta jardura hori araudiak babesten ez duen.

Arartekoak zalantzak zituen zentro guztiek txostenean adierazitako moduan jarduten ote zuten eta, horretarako, ikastetxe batek argitaratutakoaz baliatu zen: *“Posibilidad de obtener la titulación de Técnico/a Deportivo/a en Fútbol en un curso académico (de septiembre a septiembre)”*. Ondorengo txostenean lehenengoz onartu zen aukera hori, baina baldintza zehatzak bete behar ziren. Hori ere berria zen.

Behin-behineko ondorioetan azaldutakoari eutsiz, argudio horiek guztiak espedienteen izapideek aurrera egiten duten neurrian ezagutu dira eta, gainera, ez

zaizkigu aktak, ezta jardueri buruzko datuak ere helarazi. Horrenbestez, Arartekoak ezin dezake zehaztu jardueraren jatorrizko funts gisa alegatutako arrazoia hasieran adierazitakoa zen edo erabakia hartu ondoren aztertu zen.

Erakundeak ezagutu duenera arte, ondoz ondoko txostenen argudioak hasierakoari gehitu zaizkio, baina ez dira interesdunak gauzatutako administrazio-prozeduraren izapide. Hori da benetan azpimarragarria. Nolanahi ere, kexagileak 2020ko otsailaren 7ko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua formulatu zuen eta horrek ematen zituen argudioetan oinarritu zen, espedientea izapidetu den bitartean aipatutakoen berdinak ez izan arren.

Gaiaren inguruan erakundeak hezkuntza-administrazioari bere iritzia jakinarazi zion. Denbora kexagilearen aurkakoa zela kontuan hartuta, prozeduraren fase aurreratuetan elementu juridiko berriak adierazteak, neurri handian, interesdunaren beraren nahia lortzea zailtzen zuen eta defentsa-gabeziaren arrazoi izan zitekeen.

Bidalitako azken txostenaren arabera, ordea, ez zegoen defentsa-gabeziarik, kasuaren jatorrian pertsonak harreman jariatokorra izan baitzuen ikastetxearekin eta ematen ari ziren urratsen berri izan baitzuen. Are gehiago, Hezkuntza Ikuskaritzako ordezkari batekin telefonoz hitz egin zuen. Solasaldian azalpen guztiak eman zizkion eta Bizkaiko Hezkuntza ordezkariaren aurrean errekurtsua jartzeko aukera jakinarazi zion, nahiz eta gero errekurtsua ezetsi.

Arartekoak ezagutzen ez dituen jarduerak ezin ditzake balioetsi, beraz, bere argudioak eta ondorioak eskura duen dokumentazio zehatzean oinarritu behar ditu. Kasu honetan, hezkuntza-administrazioak berak erakunde honi helarazi dion informazioan eta kexagileak ezagutu duen ebazpen bakarrak islatutakoan funtsatu da. Eta agiri horien arabera, ondoz ondoko argudioen eta ukitutako pertsonarengan eragin dezaketen balizko defentsa-gabeziaren inguruan berriz ere aurreko paragrafoetan azaldutako gogoetak errepikatu behar dira.

5.

Aurreko atalean adierazitako gogoetei eutsiz, erakunde honek berariaz informazioa ez eskatu arren, ebazpen honek gertakari bat adierazi nahi du, azaldutakoekin alderatuz, antzeko ondoreak izan baititzake.

Nolanahi ere, kexagileak Bizkaiko Hezkuntzako lurralde-ordezkariaren 2020ko otsailaren 7ko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ondoren, ez zen berariazko ebazpenik eman. Agiri hau egin denera arte, behintzat, jakinarazi gabe

zegoen, administrazio-prozedurari buruzko araudian finkatutako legezko epea amaitu arren.

Izan ere, 39/2015 Legeak ezartzen du administrazio publikoek nahitaez ebatzi behar dituztela aztertu beharreko gaiak, bai eta ebatzteko epeak ere.

Hala, 21.1 artikulua, orokorrean, honako hau dioen bitartean: *“Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua. 122. artikuluko 2. idatz-zatiak dio berraztertze errekurtsoen kasuan, “ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabete izango da.”*

Arau horren 24. artikuluan xedatuta dago interesatuek eskatuta hasitako prozeduretako administrazio isiltasuna nolakoa izango den eta adierazten da horrek ez duela esan nahi baztertu egin behar denik administrazioak edonola ere eman beharreko ebazpena.

Arartekoak askotan azpimarratu izan du administrazio publikoen jardueran batzuetan izaten diren praktikek herritarrengan ondorio larriak sortzen dituztela, besteak beste, administrazio prozedurak izapidetzean justifikaziorik gabe sortutako atzerapenak edo isiltasuna erabiltzea interesatuek aurkeztutako eskarietan eta baliabideetan.

Jarduketa horiek, nabarmenki kaltetzen dute herritarren egoera juridikoa, agerikoak diren oztopoak sortuz, eta interesatuak desabantaila egoeran ezarriz eztabaidatzen ari diren gaiaren inguruan dituzten nahiak bermeekin proposatzeko, bai alderdi materialei, denborazkoei eta prozedurazkoei dagokienez.

Hala, lehenik eta behin, jarduketa horiekin, interesatuek ezin dute modu argian eta zehaztasunez eta berariaz jakin zein den administrazioak beraien iritzia eta argudioen inguruan duen asmoa, ezta zein den administrazioak eskatutakoa ez betetzeko aplikatutako oinarria, edo, zein den beraien nahia indargabetzen saiatzeko prozedura judizialean erabili beharreko oinarria.

Bestalde, administrazio egoeratik kaltetutako pertsonak, ez dakite zeintzuk diren administrazioak beraien nahiaren aurkakoa den erabakia errekurritzeko jakinarazi beharreko oinarritzko elementuak, besteak beste, dagozkion errekurtsioak, horiek aurkeztu beharreko administrazio organoa edo organo judiziala eta errekurtsioak jartzeko epeak.

Ondorioz, benetako defentsa-gabezia egoera sortu daiteke interesatuentzat, eta, edonola ere, ordenamendu juridikoak hori legez kanpokotzat jo behar du.

6.

6.1. Azkenik, Arartekoak nabarmendu nahi du, behin-behineko ondorioetan eta idazki honen hainbat aipamenetan adierazitakoaren ildotik, hezkuntza-administrazioaren erantzunak ez dute bete hainbat errekerimendu, espedientea izapidetzen ari zen bitartean ondoz ondo informazioa eskatu arren. Nolanahi ere, horien helburua kexa arrazoituta garatzeko nahikoa iritzi-elementu izatea zen.

6.2. Aurrekoari eutsiz, erakunde honek berariaz eta zuzenean eskatu zuen helarazteko *“jatorrizko akten kopia guztiak eta jarduketa horren harira gerora egin diren akta guztien kopiak”*

Aktak ez ziren bidali, ez une hartan, ezta gure behin-behineko ondorioetan gabezia adierazi ondoren ere. Horrez gain, ez egitea justifikatzeko arrazoirik ez da eman, beraz, ez da jakina jatorrizko aktek deuseztatze-eginbiderik izan duten edo ordezkioak gauzatzean besterik gabe suntsitu diren. Hori ere ez zaigu heldu.

6.3. Arestian aipatu den bezala, bi akta egoteagatik bi talde zeudela suposatzen zen eta hasieran funtsezkoa suertatu zen jarduera gauzatzeko. Baieztapen horri eusteko justifikazio juridikoaren inguruko informazioa eskatu zen, Arartekoaren iritziz, baieztapenari buruzko azalpenik ez baitzen eman. Hortik dator ebazpen honen 4. idatz-zatian transkribatutako berezko eskaera.

Erantzunen txostenak gaiari buruzko aipamenik ez zuen egin. Are gehiago, txostenaren edukiarekin bat, baieztapena egiazkoa izan arren, une horretan ez zuen garrantzirik. Gure behin-behineko ondorioen ostean bidalitako txostenak ere ez du informaziorik eman, nahiz eta ondorioek ez-egite hori aipatzen zuten.

6.4. Kexagilearen matrikulazioari dagokionez, lehen aipatu den bezala, erakunde honek hainbat gogoeta helarazi zizkion hezkuntza-administrazioari eta prozesuaren inguruko informazioa eskatu zuen, ezagutzea gaia aztertzeo oinarritzakoa zelakoan. Zehazki, gure eskaera hurrengo modu honetan egin zen:

“Baina horretaz gain, erakunde honek ere kexagilearen matrikulazio-prozesua zentroan matrikulatu zen bi mailetan nola gauzatu zen jakin nahi du, kontuan hartuta hezkuntza-



administrazioak berak arautu eta gainbegiratutako prozedura bat dela eta horien tresna informatikoek horretarako beharrezkoak diren datu guztiak jaso behar dituztela.

Zentzu horretan, kontuan hartuta (...) jauna bi maileri dagozkien aktetan egon ahalko zela, ondorioztatu daiteke bi maila horietako matrikulazioa alde aurretik jakinarazi beharko liokeela Hezkuntza Sailari eta horretarako gaituriko euskarri informatikoetan onartu behar zela. Hori dela eta, erakunde honen ustez deigarria da hezkuntza administrazioak kexa hau eragin duten inguruabarrak kontuan hartu ez izana matrikulazio hori gauzatu eta hainbat hilabete beranduagora arte.

Kontuan izan behar da jarduketa horri esker egin ahal izan zituela kexagileak bi mailetako ikasketak, eta gero zentroak horiek ebaluatu zituen eta, azkenean, ikasketak gainditu izanaren bi ziurtagiri igorri zituen.

Horren harira, eta txostenaren irakurketatik ondorioztatu daitekeenaren arabera, jardundako guztiaren deuseztapenak esan nahi du ere ondoriorik gabe utzi zela matrikulazioari buruzko jarduketa oro, nahiz eta horretan zuzenbideko aukerak sortzen dituen administrazio-egintza argi bat dagoela ikus daitekeen; baina, hala ere, ezin da azaldu zein izan zen horretarako jarraitutako prozedura.”

Ondoren bidalitako txostenak irakaskuntza horietan matrikulazioa Hezkuntza Sailaren euskarri informatikoetan ez dagoela azaltzera mugatu zen. Horrez gain, bestelako gogoetak egin ziren, baina dagoeneko idazki honen aurreko ataletan erreparatu zaie.

Bestalde, gure behin-behineko ondorioetan gaiari buruz informazio gabezia adierazi zen, baina erantzunen txostenak ez zuen xehetasun gehiagorik eman.

- 6.5. Gure eskaera-idazkiak beste atal batean Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduera eragin zuten gorabeherak antzemateari, jarraitutako prozedurari eta egindakoa idatziz jasoaz uzteari buruzko hainbat alderdi aztertzen zituen. Gauzak horrela,

“Bestalde, beharrezkotzat jotzen dugu zehaztea prozesu honetan zehar egin dituzten akte dagokienez Hezkuntza Ikuskaritzak izan ahal izan duen eskuhartzea, azkenean aldatzeko eta zuzentzeko eskatu duena.

Hala, txostenean ezarritakoaren kontra, zentroak igorritako lehenengo ziurtagiria 2019ko otsailaren 16koa da, zentroak hilabete horretan bertan hezkuntza administrazioan aurkeztu zuen ohiz kanpoko aktari erantzunez. Akta horretan interesduna ikasle bakar gisa agertzen zen. Bigarren ziurtagiria 019ko ekainaren 28koa da, zentroak hezkuntza administrazio horretan akta aurkeztu ostekoa.

Bi ziurtagirietan Hezkuntza Ikuskaritzaren zigilua ageri da. Hori dela eta, uste dugu zigilu horiek erakusten dutela gutxienez ezaguna zela jatorrizko akten edukia. Hortaz, galdetzen dugu ea zein izan daitekeen arrazoia Hezkuntza Ikuskaritzak objekziorik ez aurkeztu izanarena, ez otsailean (interesdunari bigarren mailako ikasketekin jarraitzeko aukera zuela pentsaraziz), ez eta ekainean ere.



Illo horretan, kexa honen alderdi garrantzitsuak argitze aldera, erakunde honek ere jarduketa honen oinarri izan diren inguruabarren berri emateko modua eta unea ezagutu nahi ditu; bai eta zuzenketa-neurriak presatzeko modua eta unea ere.

Akten zuzenketari eta aldaketari dagokienez, bidali digun txostena ez da behar bezain argitzailea, ez baitu adierazten nola gauzatu ziren aldaketa horiek, jatorrizkoak aldatzearen bidez edo kexa-espeditentean azterturiko erabakia hartzea eragin zuten egitatezko nahiz zuzenbideko inguruabar guztiak jasoko zituzten akta berri batzuk egitearen bidez.”

Eskaerarekiko erantzunen txostenak ez zuen ezer aipatu, beraz, hala islatuta gelditu zen gure behin-behineko ondorioetan. Gerora erakunde honi helarazi zitzaion agirian ere eskatutako informazioa ez zen argitu.

Arartekoaren iritziz, administrazio-prozedura batean garatutako jarduera bakoitzak berehalako isla izan behar du agirien bidez, denboran kokatuta espeditentean txertatzeaz gain, eta, azkenik, modu frogagarrian jakinarazi behar zaizkio prozeduran interesdunari.

Erakunde honen ustez, aurreko gogoetan aipatutako ikuspegiak baliaturik, idazki honen aurreko atalean adierazi den bezala, administrazio-espeditentean ageri diren egintzak ezin daitezke zuzenean alda, ezta izapide gehiagorik gabe ordezkatu ere. Nolanahi ere, beharrezkoa izanez gero, bidezkoa da egintza berri bat ematea, dagokion administrazio-prozedurari jarraiki. Horretan idatziz jasoak geldituko dira gorabehera zehatzak eta aurrekoan sartutako aldaketak.

Hori da modu bakarra, batetik, ukitutako pertsonen eskubideak errespetatzen direla bermatzeko eta, bestetik, jarduerak nahiz horien inguruabarra egiaztatzeko, bai gertakariei dagokienez, baita oinarri juridikoari buruz ere.

Kasu honetan, ez da gaiari buruz ezer adierazi, beraz, erakunde honek ezin izan du aztertu Hezkuntza Ikuskaritzak noiz antzeman zituen gorabeherak, gero, jarduteko. Halaber, aktak noiz aldatu edo ordezkatu ziren eta behin bakarrik ala gehiagotan ordezkatu ziren ez dakigu.

Nolanahi ere, jardun guztitik, itxuraz, honako hau ondoriozta daiteke: aldaketak kexagileari ez zitzaizkiola behar bezala jakinarazi, nahiz eta ordezkaturako aktetan oinarrituta, dagoeneko lehenengo maila eta bigarrena gaudituta zeudela adierazten zuten ziurtagiriak egin, behin eta berriz aipatutakoari jarraiki, zentro baimenduko idazkari eta zuzendariaren sinadurekin eta Hezkuntza Ikuskaritzaren zigiluarekin.

- 6.6. Bestalde, Arartekoaren iritziz, kasu honetan hartutako erabakiak berariazko izapidetze-prozedura eskatzen zuen eta, ondorioz, bere eskaeran horren inguruko hainbat gogoeta egin zituen. Gainera, nabarmendu zuen ordura arte gaiari buruzko informaziorik ez zela eman:

“Bestalde, txostenean adierazten da zuzenbide osoz deuseza dela bigarren mailako aktetan ezarritakoa. Gorago aurreratu den bezala, kexagilearen ikasketei dagokien prozesu osoan administrazio-izaerako hainbat egintza eta erabaki ikusi daitezke (matrikulaziotik Ikuskaritzako ikus-onetsitako ziurtagirien bidaltzera arte); eta horiek baliogabe deklaratzeko beharrezkoa den zenbait arrazoi espezifiko ematea eta, bereziki, tasatutako prozedura bat egotea, administrazio jardulearen ez diren organoen esku-hartzearekin, non ukitutako pertsonen beren egoera juridikoa behar bezala defendatzeko aukera izango duten. Txostenean ez da aipatzen baliogabetzeko erabaki hori hartzeko aukera ematen duen inolako prozedura kontraesankorren rekiera eta izapidetzerik.”

Erantzunen txostenean halako prozedura egoteari buruz ez zitzaigun inolako informaziorik iritsi eta, beraz, behin-behineko ondorioetan idatziz jaso utzi genuen. Orduan, Hezkuntza Ikuskaritzak azaldutakoaren arabera, bere jarduera akats materialak, izatezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko ahalmenean oinarritu zuen, erakunde honek aipatutako ikuskapen-prozedurak ez erabiltzeko argudiorik adierazi gabe.

- 6.7. Azkenik, kexagileak bere ikasketekin jarraitze aldera, gure informazio-eskaeran kautelazko neurria hartzeko aukerari buruz zenbait hausnarketa zeuden. Zehatz-mehatz esanda, honako hauek ziren:

“Azkenik, kontuan izan behar da kasu honetan denbora-igarotzea kexagilearen kontra doala. Kexagileak, gure lehenengo informazio-eskaera aurreratu dugun bezala, kirol-teknikaren ikasketekin jarraitzeko interesa du. Hori dela eta, azkenean harturiko erabakia berrikusiko balitz eta horren harira beharrezkoak diren kautela-neurriak hartuko ez balira, eskubidea urratuko litzateke, une horretan ezingo bailuke ikasketa horietako hirugarren ikasturtea egin eta ezingo bailuke bukatu indarreko ikasturte akademikoan, hortaz, erakunde honen arabera, kautelaz bere matrikula zein aipaturiko ikasketak orain arte moduan egitea baimentzeko premisak ematen dira.”

Gogoeta horien inguruan Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak ez zuen ezer azaldu, ezta aipatutako kautelazko neurririk hartu ere. Halaber, erantzunen txostenak behin-behineko ondorioetan ez zuen arretarik jarri, nahiz eta berriz ere informazio horren gabezia aipatu.

- 6.8. Azkeneko atalean aipatutakoa ikusirik, erakunde honek esan behar du hezkuntza-administrazioak bidalitako informazioari erreparatuz, ez dela



3/1985 Legeko 23. artikulua xedatutakoa bete.⁹ Horren arabera, "9.1 Atalean esandako Erakundeetako Ihardutze- sailak, eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz ematea behartuta daude."

Ondorioa

Kexa hau aurreko paragrafoetan adierazitako gogoeten arabera aztertu ostean, ondoz ondoko idazkietan Hezkuntza Sailak azaldu duen jarrera kontuan hartuta eta arrazoizko epearen barruan konponbide egokia ezin denez aurkitu, Arartekoak espedientearen esku-hartzea amaitutzat jotzea erabaki du eta, xede horrez, 3/1985 Legearen babesean, honako ondorio hauek formulatzen dira:

1. Araubide berezian kirol-irakaskuntzen ordenamenduak ez du saihesten pertsona batek urte berean bi maila egitea. Izan ere, irakaskuntza hauei buruz Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe batek egindako eskaintzan hala aurrez ikusten da.

Urrutiko zentroetan matrikulatuzetik at aukera hori beste modu batean ezin gauzatu ahal izateko araudia ez da egiaztatu espedientearen izapidetu den bitartean.

Espedientearen aztertutako kasuan, ordea, aukera hori ezetsi zen, nahiz eta kaltetutako pertsona irakaskuntza horietako bi mailatan Hezkuntza Sailak baimendutako zentroan matrikulatuta egon. Are gehiago, ikasketak egin zituen, ebaluatu zitzaion eta Hezkuntza Ikuskaritzaren zigiluarekin maila gainditua zuela adierazten zuen ziurtagiri bana egin ere bai. Hori guztia gertatu ondoren, bakarrik denbora luzea igaro zenean eta gerora ezagutu zituen ohiz kanpoko administrazio-izapideak egin zirenean, ezetsi zitzaion eta erreklamazio formulatu zuenera arte ez zuen idatzizko jakinarazpenik jaso.

2. Espedientearen izapidetu arren, erakunde hau irakaskuntza horietan erabiltzen den matrikulazio-prozedura zehatza ez da jakitera iritsi.

Lortutako datuetatik, ordea, argi dago Hezkuntza Sailak koordinazio- eta kontrol-prozedurak diseinatu eta abian jarri behar dituela, hezkuntza-administrazioak bere eskumenak eta ahalmenak arrazoizko epean eta eraginkortasunez erabiltzeko. Ildo horri eutsiz, kexan aztertutakoaren antzeko

Otsailaren 27ko 3/1985 Legea, Ararteko erakundea sortu eta arautzeari buruzkoa.



egoerak eta ukitutako pertsoneri eragindako kalteak berriz ez gertatzen saiatu behar da.

3. Erakundearen iritziz, administrazio-egintzetan dauden akats materialak, izatezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko ahalmenak, 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan administrazio publikoei ematen dienak, espedientean aztertutakoaren bezainbesteko garrantzia duten jarduerak ez ditu babesten.

Jardueren ondorioz azkenean deuseztatuta gelditu ziren administrazio-egintzak deuseztatzeko, berriz, administrazio-prozedurari buruzko araudiak xedatutako izapideei jarraiki, ikuskapen-prozedura egokia irekitzea bidezkoa litzateke. Nolanahi ere, horren bidez aurrez ikusitako organoek parte hartuko beharko lukete eta guztia ukitutako aldeei jakinarazi beharko litzateke, eurek egokitzat jotakoa alegatzeko.

4. Jarduera oinarritzeko hasieran eman ziren argudioak kexagileari jakinarazi zitzaizkion ebazpen ofizialaren bitartez, baina espedientea izapidetu den bitartean aldatu dira.

Horrez gain, prozeduraren fase aurreratuetan elementu juridiko berriak eman dira, ukitutako pertsonari hezkuntza-administrazioak ez jakinarazi arren, beraz, neurri handian, bere nahiaren defentsa zaildu da eta defentsa-gabeziaren arrazoi izan daiteke.

5. Kexagileak Bizkaiko Hezkuntzako lurralde ordezkariaren 2020ko otsailaren 7ko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtoa jarri zuen, baina ez da berariaz ebatzi eta administrazio-prozeduraren araudiak xedatutakoaren aurka doa.

Administrazioaren isiltasunak eta prozedurak izapidetzeko orduan arrazoirik gabe atzeratzeak ukitutako pertsonen posizio juridikoa nabarmenki kaltetzen dute eta defentsa-gabeziaren egoeretara irits daiteke.

6. Espediente hau izapidetu den bitartean, Hezkuntza Sailak ez du zentzuz bete erakundeak eskatu ostean, lehentasunez eta premiaz, datuak, agiriak, txostenak edo argibideak helaraztearen betekizuna, 3/1985 Legeko 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.